



Fantasiakzko eta Beldurrezko Zinemaren XXI. Astea

Hizkuntza erabileraren neurketa

Donostiako Euskaltzaleen Elkartea

Katalina Eleizegi kalea, 36-behea. 2009 Donostia
Tel: 943467181- Fax: 943446532-
e-mail: bagera@bagera.net

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. METODOLOGIA	4
3. AHOZKO ERABILERA.....	5
3.1. Filmak.....	5
3.2. Ekitaldien ongi etorri eta aurkezpenak	5
3.3. Ekitaldi nagusiak	6
3.4. Aurkezpen prentsaurrekoak	6
3.5. Prentsaurrekoak	6
3.6. Jendaurreko zerbitzuak.....	7
4. IDATZIZKO MATERIALA	8
4.1. Liburuak	8
4.2. Programazio liburuxka.....	8
4.3. Programazio taula	9
4.5. Eskuorriak, sarrerak, postalak, ...	9
4.6. WEB gunea	9
4.7. Kartelak.....	9
4.8. Prentsarako materiala	10
4.9. Errotulazioa	10
4.10. Komiki Jardunaldiak	10
5. ERAKUSKETA ETA ANTZERKIAK.....	11
5.1. Antzerkiak.....	11
5.2. Erakusketak	11
6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK	12

1. SARRERA

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartek, euskararen erabilera areagotzea ardatz duela, Donostiako aisialdian eragina duten ekintza nagusietan hizkuntza erabileraren neurketa egin ohi du: Aste Nagusia, Jazzaldia, Zinemaldia eta Musika Hamabostaldia. Hori dela eta, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astean azken urte hauetan bezala, aurten ere behaketa egin dugu.

Garrantzitsua da oso euskararen erabilera normalizatzea eguneroko jardunean. Era berean, gizarteari eskaintzen zaizkion aisialdirako kultur ekitaldietan euskaren presentzia areagotzea oso garrantzitsua da. Ostera ere, gogorarazi behar dugu euskara hizkuntza ofiziala dela Euskal Autonomi Erkidegoan eta, halaber, Donostiako udal ordenantzek euskarari ofizialtasun hau aitortzeaz gain, Udalak antolatutako ekintza guztietan lehentasuna izan behar duela esaten dutela.

Beraz, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astean antolatzen diren jardueretan euskararen erabilera idatzia zein ahozkoa areagotzea du helburu Bagerak; hau da, Beldurrezko eta Fantasiako Zinemaren Astean euskararen presentzia normalizatzea.

2. METODOLOGIA

Azkeneko urte hauetan, 2002tik, urtez urte egin du BAGERA Elkarteak Zinema Astearen neurketa eta, beraz, datu guztiak aurrean izan ditugu neurketa egin eta ondorioak ateratzerakoan. Asteak bere gain hartzen dituen momentu guztiak neurtzen saiatu gara: filmen aurkezpenak, euskaraz azpigitulua dutenak edota bikoiztutako film kopurua, programazio aurrerapenaren txostena, filmez filmeko gida, kartelak etab. neurtu ditugu besteak beste.

Behaketa aurrera eramateko orduan, bagerakideen laguntza ezinbestekoa izan da, halere, elkartetik kanpoko kolaboratzaileak ere izan ditugu behaketa aurrera eramateko orduan.

Neurketa egiterakoan, hizkuntza erabilera 3 atal desberdinetan azaldu dugu eta kasu guztietan bi eletan egin zela adierazten dugunean, zehazki, euskaraz eta gazteleraz egin zela esan nahi dugu:

a) Ahozko erabilera: Filmak, ekitaldi nagusiak, prentsaurrekoak, film emanaldietako ongi etorri eta aurkezpenak (ongi etorria, sarrerako lehen hitzak bezala eta aurkezpena pelikulen xehetasunak ematerakoan) eta jendaurreko zerbitzuak aztertzen ditugu atal honetan. Zein hizkuntza erabiltzen den eta bakoitza zein neurritan erabiltzen den hartzen dugu kontuan.

b) Idatzizko materiala: Idatzizko material ugari izaten da Astearen. Antolakuntzaren argitalpenak (filmez filmeko gida, programazioaren aurrerapen txostena...), kartelak, web gunea, errotulazioak etab. izaten ditugu aztergai.

c) Erakusketak: Atal honetan Astearen baitan antolatzen diren erakusketetan egiten den hizkuntza erabilera neurtzen dugu.

3. AHOZKO ERABILERA

3.1. Filmak

Atal hau Zinema Astearen ekintzarik garrantzitsuena dela gogoan izan behar dugu. Aurten, asteak 35 film luze eman ditu, eta horietatik, 10ek azpigitulua euskaraz izan dute eta 2 euskaraz izan dira. Bestalde, 22 labur eman dira eta horietatik 14 (lehiaketako film labur guztiak) euskaraz azpidatzita izan dira. Emanaldi kopuruei erreparatuz, 44 film luze izan dira, 10ek euskarazko azpigituluak zituzten eta bi euskaraz izan dira; beraz, film luzeen emanaldien %27,27 euskaraz izan da. Film laburren emanaldiak 39 izan dira, horietatik 14k euskarazko azpigitulua izan dute, hau da, %35,90.

Sailez-sail honakoak izan dira aurten eskainitako filmak eta euskarazko emanaldien kopurua:

- Film luzeen sail ofiziala: 24 filmetatik 6 izan ziren euskaraz azpigitulua zutenak, %25. Emanaldiei dagokionez 30 emanaldietatik, 6k euskarazko azpigitulua zuten (%20).
- Film laburren sail ofiziala: 15 filmetatik (1 lehiaketatik kanpo), 14 euskaraz azpigitulatutako emanaldi izan ziren, %93,33 (lehiaketan parte hartu dutenen artean %100ek euskarazko azpigitulua izan dute). Guztira 31 emanaldi egon ziren, %45,16 euskaraz.
- Film labur espainiarrei dagokienez, film eta emanaldien kopurua berdina izan zen. 9 emanaldietatik, bakarra ere ez euskaraz.
- Aleister Crowley eta fantasiako zinema sailean emanaldi eta filmen kopurua berdina izan zen. 9 emanaldietatik, 4k euskarazko azpigitulua izan zuten (%44,44).
- Haurrentzako zinema: 2 emanaldietatik, biak euskaraz (%100).

3.2. Ekitaldien ongi etorri eta aurkezpenak

Ongi etorri eta aurkezpenak aztertzerakoan, kontuan izan behar dugu ekitaldi batzuk film bat baino gehiagoren emanaldia direla (normalean, laburren bat lehenengo eta luze bat edo gehiago ondoren), eta gehienetan ekitaldi osoak aurkezpen bat izan ohi duela eta ondoren filmeko zuzendariak hitz egiten duela.

BAGERAk behatutako filmetatik, 9k izan dute aurkezpena. 4tan aurkezpenak bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelera) egin diren arren, jarraian hitza hartu duten pertsonak gaztelera egin dute interbentzioa eta beste hizkuntzaren bat erabili denean itzulpena gaztelera izan da. Beste 5 aurkezpenetan gaztelera soilik erabili da edo beste hizkuntza batean izan dira (itzulpena gaztelera).

3.3. Ekitaldi nagusiak

Inaugurazio ekitaldiaren aurkezpena Vanessa Rodriguez, telebista esatariak egin zuen bi eletan. Jarraian, Santiago Segurak hartu zuen hitza gazteleraz. Segurak bere azkeneko pelikularen promozio iragarki bat aurkeztu zuen (gaztelaniaz). Jarraian, Pixels film laburra eskaini zuten (hitzik gabe), eta 'Rare exports' filmaren zuzendariak igo ziren, finlandieraz egin zuten eta Segurak gaztelerara 'itzuli' zuen. Beraz, euskararen presentzia ongiatorrirra mugatu zen.

Itxiera ekitaldian, Vanessa Rodriguezek sariak aurkeztu zituen elebitan. Sari nagusiaren irabazlea ingelesez aritu zen eta itzulpena gazteleraz izan zen. Jarrarian, Rebordinosi omenaldia egin zioten, berak gaztelaniaz hitz egin zuen. Film labur bat eta bi iragarki eskaini zituzten (gaztelaniaz), eta, amaieran, zuzendari berria aritu zen, gaztelaniaz hura ere. Hemen, inaugurazioan bezala, euskararen presentzia urria izan zen, sarietako aurkezpenean bakarrik erabili zen.

3.4. Aurkezpen prentsaurrekoa

Urriak 21, eguerdiko 12:00etan, Victoria Eugenia Antzokiko foyer-ean izan zen Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren XXI. Astearen aurkezpen prentsaurrekoa. Ekitaldian Denis Itxasok (Kultura eta Gazteria zinegotzia), Ainhoa Serranok (Calle 13-ko Marketing eta Komunikazio zuzendaria), Antxon Sanzek (Kutxa Fundazioko Kultura arduraduna) eta José Luis Rebordinosek (Donostia Kulturako Zinema unitateko arduraduna) parte hartu zuten. Lehenengo Denis Itxasok hartu zuen hitza eta aurkezpena zein azalpen guztiak gazteleraz eman zituen. Ondoren Kutxako Antxon Sanzek hitz egin zuen eta bere interbentzio osoa gazteleraz izan zen. Jarraian Calle 13ko Ainhoa Serrano aurkeztu zuten (gazteleraz) eta bera ere gazteleraz aritu zen. Azkenik, Jose Luis Rebordinosek hartu zuen hitza azalpen guztiak gazteleraz eginaz. Galdera tarteak gazteleraz eta egon ziren galdera-erantzunak ere gazteleraz izan ziren.

3.5. Prentsaurrekoak

Atal honetan Zinema Asteko ekintzak aurkezteko egin diren prentsaurreko guztiak hartu ditugu kontuan, bai filmei buruzkoak, komiki jardunaldiei buruzkoak edota balorazioarenak ere.

Urriaren 19an Fantasiako eta Beldurrezko XXI. Asteko euskarazko programazioa aurkeztu zen Victoria Eugenia Antzokiko prentsa aretoan. Bertan Denis Itxaso (Gazteria eta Kultura zinegotzia) eta Ainhoa Beola (Hizkuntza Normalkuntza, Berdintasun eta Lankidetzaren zinegotzia) izan ziren. Ainhoa Beolak sarrera euskaraz egin zuen eta jarraian Denis Itxasok filmei buruzko nondik norakoak eman zituen, lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz. Bukatzeko galderentzako tarteak eta agurra euskaraz egin zituen.

Astearen zehar egindako prentsaurrekoetan astearen arduradun batek eman zion hasiera prentsaurrekoari (gehienetan Rebordinosek), nahiko labur. Hizkuntzaren aukera prentsaurrekoa aurkeztu duen pertsonaren baitan egon

da. Gehienetan gaztelera izan da, euskara hasierako aurkezpenean erabili izan da normalean. Ondoren, gonbidatuaren baitan izan da erabilitako hizkuntza, orokorrean gaztelera egin dute, eta atzerriko hizkuntza erabili dutenean itzulpena gaztelera egin da. Egindako galderak beti gaztelera izan dira eta erantzunak gaztelera edota atzerriko hizkuntzan egin dira (itzulpena gaztelera).

Baloraziorako prentsaurrekoan Denis Itxasok (Donostiako Kultura eta Gazteria zinegotziak) hartu zuen hitza lehenengo eta balantzea gaztelera hutsean egin zuen, euskarazko programazioarena izan ezik, hori euskaraz egin baitzuen. Jarraian Josemi Beltran aurkeztu zuten, Donostia Kulturako Zinema unitatean José Luis Rebordinosen tokia hartuko duena. Josemi Beltranek bi hizkuntzatan egin zuen bere interbentzioa. Azkenik Jose Luis Rebordinosek hitz egin zuen gaztelera hutsean.

3.6. Jendaurreko zerbitzuak

Jendeari erantzuteko zerbitzuetan nolako harrera jaso ahal izan dugun neurtu nahi izan dugu.

Hainbat ekitalditan aretoen sarreretan zeuden langilekin euskaraz hitz egin ahal izan dugu, askotan lehenengo hitza gaztelera izan den arren.

4. IDATZIZKO MATERIALA

Oro har Asteko antolakuntzari dagokion idatzizko materiala bi eletan edota hiru eletan idatzirik dago, nahiz eta zenbait salbuespen egon.

4.1. Liburuak

4 argitalpen eskuratu ditugu:

- “Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren XXI. Astea”-ren liburuan, astean zehar izango diren film eta bestelako ekintzei buruzko informazioa azaltzen da 110 orritan. Lehenik, antolatzaile, babesle eta laguntzaileen ziguiluak ageri dira, nahiz eta izenburuak hiru eletan egon, Donostia Kulturaren helbidea eta datuak gazteleraz bakarrik agertzen dira. Ondoren, eskerrak emateko orrialde bat dago, honen beheko aldean Donostia Kulturaren egoitzaren helbidea eta Zinema Asteko lantaldearen fitxa teknikoa ere gazteleraz daude. Hurrengo orrian, “aurtengo Astea Xabi Erdozia eta Goyo Indarten oroimenean izango da” esaldia dago 3 hizkuntzatan. 6. eta 7. Orrialdeetan, epaimahaiari buruzko informazioa dago hiru eletan. Hurrengo orrialdeetan, filmei buruzko informazioa dator hiru eletan eta izenburua jatorrizko hizkuntzan ageri den arren, aurreko urteetan bezala, alboan datorren fitxa teknikoa gazteleraz dago soilik. Horretaz gain, aipatu beharra dugu, testuen itzulpenak gaztelerazko testutik hitzez hitzezkoak direnez, kasu askotan ulertezinak direla. Gainontzeko ekintzei buruzko informazioa ere hiru eletan dago. Informazioaz gain, hainbat iragarki edo filmen kartelak daude. Hogei filmen kartelak daude, haurren 2 filmen iragarkiak euskara hutsez, 4 gazteleraz, 13 ingelesez, eta 1 frantsesez. Honetaz gain, 11 iragarletatik hiru eletan bakarra dago, gazteleraz 9 eta bi hizkuntzatan (ingelesez eta gazteleraz) 1.

- “La bestia en la pantalla” liburua: 325 orrialdekoa da eta gaztelera hutsean dago.

- “Miragarriak” liburua: 96 orrialde. Kontatzen dituen istorio guztiak hiru eletan idatziak daude. Hala ere, edizio datuak, aurkibideko izenburuak eta eskerrak gaztelera hutsean azaltzen dira.

- “2000 maniacos” aldizkaria: 82 orrialdeko aldizkaria da eta guztia gazteleraz dago, kontrazala izan ezik; bertan Fantasiako eta beldurrezko zinemaren asteko kartel ofiziala azaltzen da eta hiru eletan dago.

4.2. Programazio liburuxka

24 orrialdeko liburuxka bat da. Azalean kartel ofiziala du, hiru eletan eta antolatzaile, babesle eta laguntzaileen izenak ageri dira. Kontrazalean, berriz, Calle 13ren iragarkia dator gazteleraz. Barnean, film bakoitzaren azalpen labur bat dator, bi eletan, euskarak lehentasuna emanaz. Testuak bata bestearen itzulpena dira, baina liburuan gertatzen den bezala, gaztelerazko hitzez hitzezko itzulpenak direnez, kasu askotan testuak ulertezinak dira.

4.3. Programazio taula

Triptiko formatuan, aste osoko programazioa modu grafikoan azaltzen da. Azalean kartel ofiziala dator hiru eletan eta kontrazalean Calle 13ren iragarkia gazteleraz. Informazio guztia bi eletan dago.

4.5. Esku orriak, sarrerak, postalak, ...

Atal honetan Zinema Astearen inguruan sortzen den beste material idatzia biltzen dugu, kontuan izanik hau dela jende gehienarengana iristen den materiala.

Emanaldietarako eskuratu ditugun sarrerak oro har bi eletan egon dira, baita haurrentzako filmetako eta hasiera eta amaierako festen gonbidapenak ere.

Filmen botoa emateko orrian azalpenak hiru eletan daude. Hala ere aipatu beharra dugu orriaren izenburua gazteleraz dela oraindik: monstrómetro.

Jose Luis Rebordinos eta Lucía Olacireguiren omenez ateratako txartelak gaztelera hutsean daude.

“La raiz del mal” filmaren propaganda esku orria gazteleraz eta ingelesez dago.

Erakusketak iragartzen dituzten postalak bi eletan daude.

4.6. WEB gunea

Aurtengo web gunean, iaz bezala, lehenik hizkuntza aukeratzeko pantaila agertzen da, sartu (euskaraz), entrar (gazteleraz) eta enter (ingelesez), aipatutako ordenan. Informazio guztia hiru hizkuntzetan eskuratzeko aukera ematen du. Aurten, urtero bezala, filmen fitxa tekniko guztiak gazteleraz izan dira. Horretaz gain, beste akats bat ikusi dugu: orrialde guztietan (behealdean) idazpuruan agertzen diren fantasiako eta beldurrezko astearen datuak gazteleraz daude bakarrik (Semana de cine fantástico y de terror, helbidea...). Astearen egunez-egunekoa jarraitzeko aukera ezberdinak daude: flicker, YouTube eta Twitter-en sartzeko aukera dago. Azaltzen diren bideo eta argazki oin gehienak gazteleraz daude.

4.7. Kartelak

Guztira 8 kartel ikusi ditugu Zinema Astearen zehar prentsaurrekoetan barne:

- Ofiziala: Hiru eletan ikusi ditugu kartel guztiak.
- Babesleena: prentsaurrekoetan ikusi izan dugu eta bertan antolatzaile eta babesleen berri hiru eletan agertzen zen.

- Komiki Jardunaldien kartelak hiru dira. Informazioa bi eletan dute hirurek. Izenburua, hiruetan bi eletan dago.
- Bi erakusketa daude eta bakoitzeko kartel bat. Informazioa bi karteletan bi eletan da.
- Piztia pantailan, Aleister Crowley eta Fantasiako Zinema kartela bi eletan.

4.8. Prentsarako materiala

Prentsaurrekoetan eta antolakuntzak emandako poltsan eskuratu izan dugun materiala bildu dugu: prentsa txostena, eguneko programazio txostenak, filmei buruzko informazio txostenak, erakusketei buruzko informazio txostenak eta zenbait iragarki besteak beste. Oro har, bi eletan edo hiru eletan zegoen informazioa, nahiz eta batzuetan hutsuneak izan (fitxa teknikoak eta helbideak adibidez gaztelera hutsean zeuden).

Bestetik, posta elektroniko bidez bidalitako prentsa oharretan, informazioa euskaraz jaso dugu. Hala ere, antolakuntzarekin zuzenean izan ditugun mezu trukaketetan erantzuna gaztelera hutsean jaso dugu beti.

4.9. Errotulazioa

Zine aretoetako edota erakusketa tokietako eta bulegoetako ateetan ipinitako ohar edo txartelak orokorrean bi eletan ikusi ditugu.

4.10. Komiki Jardunaldiak

Komiki Jardunaldien programazioa azaltzen duen 4 orrialdetako liburuxka bi eletan dago, bata bestearen itzulpena da.

5. ERAKUSKETA ETA ANTZERKIAK

5.1. Antzerkiak

Aurten antzerki bakarra egon da eta gazteleraz izan da.

5.2. Erakusketak

Zinema Astearen inguruan egon diren sei erakusketa behatu ditugu, alde batetik komiki jardunaldien inguruko lauak eta bestetik, Kauju munstroen pertsonaien erakusketa eta O Apóstolo erakusketa.

- Komiki Jardunaldien inguruan 3 erakusketa antolatu dira. Lauetan hizkuntza erabilera antzekoa izan da. Salvador Laroca erakusketan kanpoaldean zeuden kartel nagusiak bi eletan zeuden eta baita argazki oinak ere. Euskadi Fantastikoa VI Dani Fanoren erakusketan panel nagusia eta argazkien oinak bi eletan zeuden (komikiak euskaraz), Gillermo Gonzalezen erakusketan ere azalpen panela bi hizkuntzetan eta argazki oinak bi eletan. Azkenik, Miragarriak erakusketa panela bi eletan zegoen eta ez zegoen argazki oinik.

- Kauju munstroen pertsonaien erakusketan panel nagusia eta erakusleihatoko testuak eta oinak bi eletan zeuden. DVDA ikusgai zegoen eta gazteleraz zen.

- O Apóstolo erakusketan, panel nagusia eta informazio panela gaztelera hutsean zegoen, baita argazki oin guztiak ere.

6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Orain arte azaldutako datuak aztertuz, atalez atal balorazio orokor bat egingo dugu jarraian.

Ahozkoan eta filmetan erabilitako hizkuntzari dagokionean iaz baino 2 gehiago izan dira euskaraz azpitulua zuten filmak. Aurten sail ofizialekoak 6 izan dira (iaz baino 2 gehiago), beste 4 Aleister Crowley sailean eta haurrentzako bi filmak euskarazko bertsioan izan dira (iaz bezala). Film laburrei dagokienez, sail ofizialean lehiaketan parte hartutako filma guztiak euskaraz azpidatziak izan dira baina film labor espainarrei dagokienez ez da euskararen presentziarik izan. B alde programazioan egon diren 5 pelikuletatik ez da bakarria ere euskaraz izan.

Film luzeetan kuantitatiboki, urtetik urtera, pixkanaka bada ere, euskarazko film azpidatzen kopurua goraka doa (iazko datuekin alderatuta 8tik 10ra). Haurren bi filmak euskaraz izan dira eta film laborretan lehiaketan parte hartu dutenen %100ek euskarazko azpitulua izan dute, iaz bezala. Film labor espainiarren kasuan, aipatu beharra dugu, aurten euskaraz ekoiztutako film laborrik ez dela izan (iaz bakarria izan zen, publikoaren saria jaso zuena). Aldaketa nabariena Sail Ofizialean izan da; iazko 8 filmetatik aurten 10era igo da eta Sail tematikoan kopuru bera mantendu da (4 film hain zuzen ere).

Dena dela, zertan hobetua badago oraindik ere, ekitaldi nagusietan, aurkezpenetan eta prentsaurrekoetan euskararen presentzia oraindik ez baita behar bezain bestekoa. Are gehiago, Zinema Asteko aurkezpen prentsaurrekoa gaztelera hutsean izan da, ez da euskararen presentziarik izan. Inaugurazio eta klausura ekitaldietan ere, euskara erabili beharko litzateke eta ekitaldi hauetan proiektatzen diren filmetan euskara bermatu beharko litzatekeela uste du BAGERAK. Gainerako interbentzioetan ere euskararen presentzia areagotu beharko litzateke (sari banaketetan, esketxetan, e.a.), gazteleraz izaten direlako gehienbat. Filmen aurkezpen gehienetan eta prentsaurrekoetan gaztelerak euskararen gainetik jarraitzen du nabarmen.

Idatzizko materialari dagokionez, elebitasuna mantendu arren badira zuzendu beharreko batzuk. Txostenean aipatu bezala katalogo ofizialean, programazio liburuxkan eta web orrian, azalpen testuak gaztelerazko hitzez hitzezko itzulpenak direla nabaria da, horren ondorioz testuak oso era korapilatsuan daude idatziak eta askotan ulertezinak egiten dira esaldiak. Bestetik, Asteak kaleratzen dituen argitalpenetan ere elebitasuna lortu beharko litzateke. Aurten zorientzekoa da lehen aldiz, hiru hizkuntzetan kaleratutako liburu bat argitaratu izana ("Miragarriak"). Orobat aipatu nahi genuke, astean zehar euskaraz izango diren film emanaldiak biltzen zituen liburuxka kaleratzea oso positibotzat jotzen dugula, euskarazko emanaldiei zabalpena ematen laguntzen duelako eta gainera aurten lan handia egin dela uste dugu (ikastetxeetan, hedabideetan...). Web orriari dagokionez, euskarazko bertsioan, filmen fitxa tekniko guztiak gazteleraz daude eta orrialde guztietan (behealdean) idazpuruan agertzen diren fantasiako eta beldurrezko astearen datuak ere gazteleraz daude bakarrik (Semana de cine fantástico y de terror, helbidea...). Urte askoan aipatu dugun hutsunea da eta zuzenketa egiteko ordua dela uste dugu.

Azkenik, **erakusketei** dagokienez, aurrera pausuak ematen ari direla ikusi dugu, iazkoekin alderatuta. Erakusketetan idatzitakoa oso gutxi izan arren, txarteltxoetan hizkuntza erabili denean, bi eletan izan da; baita paneletan ere. Baina, hala ere, hutsuneak hor daude oraindik. Hutsune nabarmenena Fnac-en ikusi dugu (“O Apóstolo” erakusketan, hain zuzen). Panel nagusia eta informazio panela gaztelera hutsean zegoen, baita argazki oin guztiak ere. Horretaz gain, Fnac-ek kaleratzen duen esku orrian ere erakusketaren berri gaztelera hutsean dago.

Oro har, BAGERA Elkarteak positiboki baloratzen du iaz emandako aurrera pausuak aurten ere mantendu direla ikustea, eta, pixkanaka bada ere, euskaraz azpidatzitako filmen kopuruak gora egitea. Dena dela, oraindik ere, hutsuneak handiak direla deritzogu, bai prentsaurreko, ekitaldi nagusi zein filmen aurkezpenetan. Horretaz gain, idatzizko materialean euskarazko testuek era txukun eta ulergarri batean idatzita egon behar dute, ez baitu zentzurik euskararen presentzia bermatu arren, gaztelerazkoak irakurri behar izateak filmaren nondik norakoaz jabetzeko. Beraz BAGERAK ondokoa proposatzen dio Zinema Asteko antolakuntzari: dauden hutsuneak zuzendu ditzala eta aurrerapausoak sendo manten ditzala. Txostenean azaltzen den bezala, urtero errepikatzen diren hutsuneei konponbidea eman diezaiela, Zinema Astearen euskararen normalizazioa lortzeari begira. Antolakuntzak badaki, bide horretan BAGERAren laguntza behar izanez gero, beti prest izango gaituela.